


FUNTSEZKO SOZIETATEAK - ELKARTEAK

Aurreko ataletan azaldu dugun bezala, proiektu hau ez da proiektu txiki bat, hainbat helburu lortu behar ditugu gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Helburu horietako bat, aliantzak lortzea da, gure proiektua egia bihurtu ahal izateko.

Gure proiektuaren hasieran, aliantza batzuk lortzea beharrezkoa da, nagusiki bi dira aurreikusten ditugunak: Eraikuntza enpresa batekin (ur-parkea sortzeko) eta albaitari mediku bat (parkean dagoen bitartean min har dezaketen maskotei arreta emateko).

Lehenik eta behin, eraikuntza-enpresa batekin aliantza bat ezarriko dugu kontratu baten bitartez; alde batetik, gure enpresak onura bat izango luke: eraikitzaileei esker, ur-parkea eraikitzea eta, horrela, gure bezero guztiei atea irekitzea. Bestalde, lehen esan dugun bezala, eraikuntza-enpresak dirua izatearen onura lortuko dute, gure ur-parkea eraiki egingo zutelako.

Hau da, gure obra guztia (bulegoak, aldagelak, txirristak, aparkalekua...) Construcciones Riol SL izeneko eraikuntza-enpresarekin egingo dugu beti. Gure proiektua eraikiko dugun lekutik gertu dagoen enpresa da, Kandela Zubieta kalea 37, Leioa. Beti izan dugu konfiantza haien lanean, batez ere kalitatea eskaintzen baitute beren lan guztietan, aholkularitzan eta tratuan. Bestalde, eraikuntza mota asko egiten dituzte, adibidez, eraberritzeak, lokalen eraikuntzak (farmaziak, unibertsitateak, ur-parkeak...) etab.



Aitzitik, albaitari zerbitzua izango dugu. Hau eskaintzeak lagunduko digu une batean txakurraren osasunarekin zerikusia duen arazoren bat badugu, albaitari baten moduko bulego bat izatea, txakurra berehala sendatzeko. Honek gure erabiltzaile guztiei segurtasuna emango die, edozein ezbehar gertatuta ere erantzun azkarra emateko prest agertuko garelako.



Gainera, Royal Canin enpresaren produktuak erabiliko ditugu eta enpresa honen irudia ikusgai izango da parkean zehar, horrela prezio bereziak lortuz.

